

Zurumurru bat ez da edozein informazio. Zurumurru bat da estereotipo bat edo aurreiritzi bat daraman informazio bat. Pertsona guztiok daukagu sinesmen sistema bat; jaioak garen lekuak, gure generoak edota klase sozialak mundua modu batean ikustea eragiten digu. Eta horrek estereotipo eta pentsamendu batzuk izatea dakar.

Adibidez, klase sozial altu-koa banaiz eta kalean norbait eskatzen ikusten badut, gatazka sortuko zait eta horrek emozio bat emanen dit.

Halakoek mugitu egiten gaituzte eta gure ekintzak diskriminatzaileak izatea ala ez izatea eragiten dute. Zaska sareko Xabier Jauregik azaldu digunez, zurumurruak gure egunerokotasunean dauden informazio horiek dira; gure sinesmen sistemaren arabera, leku batera edo bertzera eramanen ditugu.

Egunero sare sozialak jarraitzen baditugu, informazioa jasoko dugu, baina gure sinesmen sistemaren arabera, erran dezakegu: «Egia da, horrela da». Eta agian ez dugu harremanik izan zurumurruan aipatzen diren pertsonekin.

Horregatik da hain garrantzitsua espiritu kritikoa piztea. Zaska sarearen helburua hori da. Horretarako, lanketa pertsonal bat proposatzen dute, gauden lekuan kontzienteago izan gaitezen: gure erlazioetan, lan eremuetan, udaletxeetan, kuadrillan zein familian.

TALDEEKIN BATERA

Jendeak sarea ezagutzea nahi dute. «Gure formazioak bisitatzen ditugun taldeekin sor-



ZASKA SAREA

Zurumurruei aitzin egiteko, espiritu kritikoa eta instituzioen ardura

 **JENDARTEA** / Maider IANTZI GOIENETXE

Gorrito diskurtsoak eta zurumurruak areagotzen ari dira egunerokotasunean. Horiei aurre egiteko, lanketa pertsonal bat egitea proposatzen du Nafarroako Zaska Sareak, gauden lekuan kontzienteago izateko eta hortik ardura hartzeko. Baina erantzukizunik handiena instituzioena dela azpimarratzen du. Hasi dira pausoak ematen.

tzen ditugu. Erriberara joan izan gara, politikariekin eta poliziekin ere aritu gara, eta bakoitzak ikuspuntu ezberdina dauka. Hortik ikasten dugu eta gure formazioak begirada horiekin eraikitzen ditugu. Jendarteari esan nahi diogu hemen gaudela. Urte hauetan guztietan formazio asko egin ditugu, eta denekin egin ditugu, ez da gure gauza bakarrik», adierazi du Jauregik.

gure, ez da gure gauza bakarrik», adierazi du Jauregik.

Nafarroako 31 entitatek eta norbanakok osatzen dute Zaska. Tartean dira Iruñeko eta Burlatako udalak, Sakanako Mankomunitatea, SOS Arrazakeria, Sei elkarteak, CEAR eta Gurutze Gorria.

Sarea pertsona guztiei irekia dago. Formazioak ematen di-

tuztenean, beti luzatzen dute bat egiteko gonbidapena. Hala azaldu du kideak funtzionamendua: «Hilean behin osoko bilkura egiten dugu. Bertan parte hartzen dute nahi duten sarekideek eta bertan hartzen ditugu erabaki orokorrak. Horrez gain, bi talde daude, bat komunikaziokoa eta bestea formazioena».

FORMAZIO SAIOAK

Gaur egun, Zaska sarearen ekintza nagusia formazio saioak eskaintzea da. Ikastetxeetan, ikasleekin, irakasleekin eta guraso elkarteekin aritzen dira. Udaletxeetara ere joaten dira, politikariak, langileak zein gizarte zerbitzuak trebatzera. Iruñeko Udaltzaingoari ere eman diote formazioa.

Liburutegietan egin izan dituzte saioak, herriko jende guztiari irekiak, baita gaztelekuetan ere. «Ahal dugun talde edo leku gehienetara iristen

Zaska sarearen ekintza nagusia formazio saioak eskaintzea da. Ikastetxeetan, udaletxeetan, gaztelekuetan zein liburutegietan ibiltzen dira. Iruñeko Udaltzaingoari ere eman diote formazioa.

ZASKA SAREA

saiatzen gara. Helburu berbera dugu denekin: espiritu kritikoa piztea. Aldatzen dena begirada da. Taldearen begiradaren arabera kokatzen dugu formazioa», agertu du Jauregik.

Saioen hasieran, jendeak erremintak galdegiten dizkie sarri, eta Zaskakoek beti erantzuten dute lehendabizi lanke-ta pertsonal bat egin behar dela tresnak hartzeko. «Kontuan izan behar dugu, zurrumurru bati kontra egin behar diogunean, gatazka batean sartuko garela, eta lanketa pertsonal hori egina ez badugu, irabaztera joango gara ematen ditugun erremintekin».

«Bai-ez, bai-ez» gatazka amaigabe batean sar gaitezke, eta anitzez haserreago eta urrunago buka dezakegu. Egoera horietarako gako batzuk ematen dituzte formazioetan, bertze era batera hurbiltzen saiatzeko. «Jakin behar dugu pertsona guztiok daukagula sinesmen sistema bat, eta ez dugu erabaki. Baina goazen horretaz kontziente izatera, ardura hartzeko».

LANKETA PERTSONALA

Lanketa pertsonalean, gatazka bat zer den, nola sar gaitezkeen gatazka batera edota kudeatzeko zer modu desberdin dauden ikasten dute. Bertzetik, estereotipo, aurreiritzi eta zurrumurruak jorratzen dituzte, baita horiekin lotuta sor daitezkeen ekintza diskriminazioak ere.

Mugimenduzko dinamiken bidez, pribilegioez aritzen dira, zer pribilegio dauzkagun eta horiekin nola eta nondik komunikatzen garen jabetzeko. Eta txoke kulturalari ere heltzen diote, praktikak eginez, halako egoerarik gertatzen zai-gunean gauzak bertze modu batean egiteko.

Bigarren atal batean, gorroto diskurtsoen aurkako narratiba alternatiboak eta kontranarratibak eraikitzen dituzte.

Lehenbiziko formakuntza hau egiteko gutxienez lau ordu behar direla gomendatzen dute. Hala ere, taldeen beharretara egokitzen dira. Ikastetxeetan, adibidez, ikasle batzuei lau orduko saioak ez zaizkie hainbertze iristen. Hor-taz, ordu eta erdi edo bi orduko pilulak eskaintzen dizkiete. Gertatu izan zaie talde bati 12-14 orduko saioa ematea ere, praktikak eginez.

INSTITUZIOEN APUSTUA

Lanketa pertsonala dago alde batetik, eta bertzetik, instituzioen ardura. «Erakundeek beren barne lanketa egin behar dute, ezin delako gertatu instituzio batek zurrumurru bat ateratzea edo politika diskriminazioa bat egitea. Funtzionario batek ezin du hasi kolektibo batzuen kontra zerbait esaten. Hor egitura batzuk egon beharko lirateke, 'kontuz, hau hemen ezin da egin' ohar-taraziko luketenak», azpimarratu du Jauregik.

«Zaska sarean 2016an hasi ginen lanean, eta ikusten dugu gutxinaka-gutxinaka instituzioak honen aldeko apustua egiten ari direla. Hasieran ez geneukan hitzarmenik eta orain Nafarroako Gobernuarekin daukagu. Hainbat udalek ere deitzen digute. Gehiago ezagutarazten ari gara eta jendeak beharra ere sumatzen du, jendartean zurrumurruak areagotzen ari direla ikusten duelako eta zerbait egin nahi duelako horiei aurre egiteko», baloratu du kideak.

Illo beretik, hedabideek ere funtsezko papera dutela eta fil-troak sortu behar dituztela nabarmendu du: «Hau ezin da



esan, ez da egia. Orokortasun bat ere ez da egia; pertsonak orokortasun bat baino gehiago gara eta orokortasunak eragiten digu pertsona ikustea ekintza bat bezala, eta ekintza bat baino gehiago gara».


Astero agertzen da, adibidez, delitu bat egin dutenen jato-

rria, edo norbait “migratzai-lea” edo “etorkina” dela erra-ten da. «Migratzaile bat da mugimenduan dagoen pertso-na bat. Jada iritsi bazara, ez zaude mugimenduan. Eta ez zara migratzaile jaiotzen», ohartarazi du. «Jakin beharko dugu gure herriak eta herrialdeak anitzak direla. Baina le-kua eta pribilegioak uzteko kontu bat ere bada».

Ohiko zurrumurru bat «di-rulaguntza gehienak kanpotar-rek jasotzen dituzte» dioena da. Pasatzen ahal zaigu horri datuekin aurre egiten saiatu eta ez konbentzitzea. «Datuek ez dute ezertarako balio. Edo balio dute jada enpatia pixka bat hartu duzunean. Baina zu-rrumurru horri dagokionez,

Pertsona guztiok daukagu sinesmen sistema bat; jaio garen lekuak, generoak edota klase sozialak mundua modu batean ikustea eragiten digu, eta horrek estereotipo batzuk izatea dakar

«Migratzailea mugimenduan dagoen pertsona da. Iritsi bazara, ez zaude mugimenduan. Eta ez zara migratzaile jaiotzen. Jakin beharko dugu gure herriak eta herrialdeak anitzak direla»



zergatik ez dituzte laguntzak jasoko? Dirulaguntzak beharra duten pertsonentzat dira. Iku-si beharko dugu gizarte hone-tan zergatik txiroen bizi dire-nak kolektibo hauek diren eta barne hausnarketa bat egin beharko dugu. Bestetik, ‘lana kentzen digute’ esaten da, bai-na pertsona bat lanean ari de-nean, ez ditu laguntzak jaso-tzen. Orduan, kontuz: pagaburu bat sortzen ari gara zurrumurru desberdinekin».

«Gainera, ‘ez dute zergarik ordaintzen’. Baina ogi bat eros-ten badut zerga sortzen ari naiz. Eta laguntzek ere ekono-mia sortzen dute. ‘Kanpotar-rak’ diogu, baina nor da kan-potarra?». Jauregiren arabera, ez dugu fokua arazoan jartzen:

agian gizarte bezala ez gara gauzak ongi egiten ari».

Gaineratu duenez, pertsona guztiok behar dugu talde ba-ten parte izatea. «Askotan, tal-de baten parte izateko, gure ekintzak beste batzuen kontra egiten dira. Oso era sotilean izan daiteke. Barre batzuen bi-dez, esaterako. Horrek, talde baten parte bagara, hor finka-tzen gaitu, talde horren egite-ko modua delako. Talde horrek zurrumurruak eta gorroto dis-kurtsoak egonkortzen ditu».

Elon Muskek egindako keinu naziaren ondotik, eskola ba-tzuetatik deitu zieten sarekoei, haur eta gaztetxoak keinu hori egiten hasi zirela-eta.

«Arlo komunitarioan lan egiten duzun pertsona bat ba-zara, espiritu kritikoa duena, badakizu nondik nora doazen gauzak, baina badago jendea ez dakiena. Nerabeak beren bi-dea bilatzen ari dira eta halako gauzak agertzen badira, kon-tuz ibili behar da. Edo pertso-na heldu bat banaiz, etxetik asko ateratzen ez naizena, kontuz, alde batera edo beste-ra joan naitekeelako. Keinu na-ziarekin gertatu dena ez da gauza orokor bat izan, eta ez da horrela hartu behar, baina egia da horrek inpaktu bat daukala eta norbaiti ailegatzen zaiola», adierazi du Jauregik.

ABIAPUNTUA

Orokorrean, formakuntza ematen dutenean, ordu gehia-go behar dituztela aipatzen diete partaideek. Abiapuntua dela eta jarraitu nahiko lukete-la. Hain dira sakonak, adibi-dez, matxismoaren eta arraza-keriaren sustraiak...

«Beldurra ere handia da, eta ezjakintasuna. Horregatik, hau guztia kokatzea lagungarria da pertsonentzat eta taldeentzat. Agian ohartzen gara gauzak

«Orokortasun bat ez da egia; pertsonok hori baino gehiago gara. Orokortasunak eragiten digu pertsona ikustea ekintza bat bezala, eta ekintza bat baino gehiago gara»

«Desberdintasunarekin eta beldurra ematen digunarekin harremantzen garenean, ezagutu egiten dugu eta gure estereotipo eta aurreiri-tziak aldatu egiten dira»

egiteko beste era batzuk dau-dela edo zerbait ez genuela kontuan izan».

Lantalde batean halako for-makuntza bat egiteak talde horretan gai honetaz mintza-tzen ari direla erran nahi du. Jauregik agertu duenez, aurre-kari bat jartzen du eta garran-tzitsua da poliki-poliki lanketa hauek egiten joatea.

LEKU SEGURU BAT

Saioak leku seguru bat sortzen saiatuz hasten dituzte beti. «Sortzen dugunean, asko hitz egiten da eta jendeak buruan dauzkan gauza asko esaten di-tu. Batzuetan esaten duzu: ‘Uau!’. Baina hori guztia bota-tzea ongi dago. Harremantzen zara eta ikusten duzu badau-dela beste pertsona batzuk zu bezala pentsatzen dutenak. ‘Ez nago bakarrik honetan’, senti-tzen ahal duzu».

Zurrumurruei kontra egite-ko modurik onena harreman-tzea dela aldarrikatu ohi du Zaska sareak. «Desberdintasu-narekin eta beldurra ematen digunarekin harremantzen ga-renean, ezagutu egiten dugu eta gure estereotipo eta aurrei-ritziak aldatu egiten dira. Bes-tela orokortze bat egiten dugu. Orokortze horrek pertsona deshumanizatzen du eta dis-kriminazioak sor daitezke».

Taldeetan aniztasuna egotea bilatu behar dugula defendatu

du Zaskako lagunak. Udalekin lan egiten dutenean, erratera-ko, halako eremuak sortu behar direla erraten diete, ber-tzeekin harremantzeko.

«Batzuetan oso politak iza-ten dira gure formakuntzetan aniztasun handia dagoenean sortzen diren eztabaidak. ‘Hau ez nuen ikusten, ze pribilegio-duna naiz’, esan dezake nor-baitek», kontatu du. Izan ere, harremantzen hasten zare-nean ohartzen zara ikusten ez zenituen errealitateez, eta ber-tzearen lekuan jartzen zara.

NOR DA PAGABURUA?

Jauregik uste du gorroto dis-kurtsoak eta zurrumurruak beti daudela hor eta bilatzen direnak pagaburuak direla. «Hori da kontua: nor da orain pagaburua? Zein interesenga-tik? Gure egunerokotasunean une batzuetan areagotzen di-ra; hauteskundeen aurretik, edo momentu kritiko batzue-tan, interesengatik. Gure gi-zartea momentu zaurgarri ba-tean dagoenean ere bai».

Berriki izan dugun itzalaldia jarri du adibide gisa. «Gertatu orduko hasi ziren hau edo bes-tea izan zela esanez. Nola joka-tzen duten ‘fake news’-ek eta sare sozialek...».

Egunotan, Zaska sarekoak Burlatako Udalarekin eta Gaz-tegunearekin ari dira lanean. «Zurrumurruen formakuntza bat emateko eskatu ziguten. Horrekin gidoi bat sortzeko eta Burlatako Antzerki Eskola-rekin bideo bat grabatzeko as-moa dute». Bertzetik, Iruñeko Iturramako Institutuko ikas-leei eman zieten formazioa joan den astean, eta aitzinera-go irakasleei emanen diete.

«Jendea pixkanaka kon-tzientzia hartzen ari da, eta hori positiboa da», baloratu du Zaska sareko lagunak.

Zurrumurru arrazista,
xenofobo, aporofobo,
lodi-fobo zein matxistak
normalizatu egin dira.
Priscilla DU PREEZ | UNPLASH